

Ordizian, bi mila eta zortziko ekainaren hogeita seian, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu zen **UDALBATZA PLENOA, OHIKO BILKURAn**, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Belen Maiza Urrestarazu

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Miren Auzmendi Urkiola	EAJ-PNV Taldea
Jon Txurruka Etxezarreta	EAJ-PNV Taldea
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE Taldea (PSOE)
Maialen Galparsoro Odriozola	EB-Berdeak/Aralar taldea
Mikel Leunda Semperena	EB-Berdeak/Aralar taldea
Iban Asenjo Garde	EA Taldea
Mónica Marañón Basarte	PSE-EE Taldea (PSOE)
Jose J.Lopez Fernandez	PSE-EE Taldea (PSOE)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Jose Miguel Santamaría Ezeiza	EAJ-PNV Taldea
Alejandra Iturrioz Unzueta	PP Taldea
Iñigo Manrique Cía.	

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

Ana Urkizu Kerejeta

KONTU-HARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi

ITZULTZAILEA

Garbiñe Mendizabal Mendizabal



INKORPORAZIOAK ETA AUSENTZIAK

AZTERTUTUTAKO GAIAK

GAI-ORDENENKO AZTERGAIK:

- 1.- 2008ko maiatzaren 29an egindako Osoko Bilkurak egindako bileraren akta onartu.
..... **4. orria**
- 2.- Ezker Batua-Aralar Taldeak aurkeztutako mozioa: Sahar herriarekiko elkartasun adierazpena.
..... **4. orria**
- 3.- Ezker Batua-Aralarrek aurkeztutako mozioa, abortuaren despenalizazioaren alde.
..... **6. orria**
- 4.- Ezker Batua-Aralarrek aurkeztutako mozioa, Homofobiaren, lesfobiaren eta transfobiaren aurkako Nazioarteko Egunari buruzko Adierazpen Institutuzionala babesteko.
..... **10.orria**
- 5.- Ezker Abertzaleak-ek aurkeztutako mozioa: Palestinar herriarekiko elkartasun adierazpena.
..... **12.orria**
- 6.- Ezker Abertzaleak-ek aurkeztutako mozioa, Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurkako 33/01 auzia dela-eta.
..... **14.orria**
- 7.- Ezker Abertzaleak-ek aurkeztutako mozioa: "Euskal Herrian Demokrazia Zero".
..... **17.orria**
- 8.- Ordiziako alde zaharrea trafikoa arautzen duen ordenantzaren aldaketa.
..... **19.orria**
- 9.- Gizarte Ongizateko Aholku Batzordearen Araudiaren hasierako onespina.
..... **23.orria**
- 10.- 2007ko Kontu Orokorraren onarpena.
..... **25.orria**
- 11.- Udalaren eta CAF enpresaren artean sinatuko den hitzarmenaren behin betiko onespina.
..... **26.orria**
- 12.- Filipineta kaleko 1.ean egingo den eraikineko garajeetara sartzeko arrapalarako Emakida Administratiboa.
..... **30.orria**
- 13.- Publizitateko Ordenantzaren behin betiko onespina.
..... **30.orria**

PRESAZKO BIDETIK AZTERTUTAKO GAIK:

GORABEHERAK.

Publikoa izan da Osoko Bilkuran.



- NORBERAK LEKARKEENA.

- EA, PSE-EE (PSOE) eta EB-Berdeak/Aralar taldeen babesak EAJ/PNVko zinegotziei, mehatxuzko pintadak direla-eta.
- Publizitate Ordenantza behin betiko onetsi gabe uzteko erabakiaren gaineko xehetasunak.
- Publikoaren galderak, AHTri buruz.
- Gaur ospatzen den "Torturaren Aurkako Nazioarteko Eguna-ri" buruzko oharra.

..... 30.orria

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 8,00

AMAIERA ORDUA: 9,50



Lehendakari andreak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanez:

1.2008ko maiatzaren 29ko ohiko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2008ko maiatzaren 29ko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Lehendakari andreak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: bat ere ez.

Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Lehendakari andreak proposamenaren bozketari ekin dio, zehaztutako zuzenketak egin ondoren.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 7 (PNV 1, EA 2, PSE-EE (PSOE) 2, EB-Berdeak/Aralar 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 2. Jose Javier Lopez (PSE-EE (PSOE)) eta Jon Txurruka (EAJ-PNV) abstenitu egin dira, bilkuran ez direlako egon.

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakari andreak.



Segidan, Alkate andreak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

2.Ezker Batua-Aralar Taldeak aurkeztutako mozioa, Saharar herriarekiko elkartasuna adierazteko.

Proposamena

1975etik gaur egunera arte tragedia handia bizi dute sahararrek, hain zuzen ere garai hartako Espainiako Gobernuak (Madrilgo Hirutariko Itunaren bidez) Mendebaldeko Saharako lurraldeak Marokko eta



Mauritaniako gobernuei legez kanpo eman zienetik. Gauzak horrela, ez zen deskolonizazio-prozesua burutzeko aukerarik izan eta sahararrek ezin izan zuten euren etorkizuna autodeterminazio-erreferendum bidez hautatu.

Eskubide hori onartzen duten NBEren aldarrikapenak asko izan dira. Eta legezko konponbide baketsuaren beharra azpimarratu izan du erakunde honek, sahararrek gauzatu behar dutena, hain zuzen ere burutu gabeko deskolonizazio-prozesuari amaiera emateko.

Horregatik, Ezker Batua-Aralar taldeak, Osoko Bilkuraren Arautegi Organikoaren 104. artikulua babesean, honako Adierazpen Instituzionalak aurkeztu du Bozeramaleen Batzordeak azter dezan.

Prozesu honetan Espainiako Estatuak duen ardura politiko, historiko eta morala kontuan hartuta, beheko puntuekin hartu dugun konpromisoa berresten dugu:

1. – Sahararren auzi justuaren alde eta Erreferendum libre eta demokratikoaren bidez Autodeterminaziorako duten eskubidearen alde egiten dugu, Nazio Batuen babesarekin eta berme guztiekin, NBEaren 1.495 (2003), 1.754 (2007ko apirila) eta 1.783 (2007ko urria) Ebazpenen arabera.

2. – “Mendebaldeko Sahararen determinazio librerako Bake Planaren” alde egiten dugu, eta arazoa konpontzeko bide bakartzat jotzen dugu.

3. – Gure ardura azaldu eta Mendebaldeko Saharan okupatutako lurraldeetan Giza Eskubideak errespetatzea eskatzen dugu. Halaber, preso politiko saharar guztiak berehala askatzea eskatzen dugu, Giza Eskubideen babeserako erakundeek eskatutakoa betez. Modu berean, ezinbestekotzat jotzen dugu behatzaileek nahiz komunikabideek lurralde horietara libreki sartu ahal izatea.

4. – Tinduf-eko errefuxiatuen kanpamenduetan baldintza onartezinetan bizi diren sahararrentzako laguntza humanitarioa eta elkarlana areagotzea, bertan bizi direnen bizi-baldintza kaxkarrak hobetu eta elikaduran, osasunean, hezkuntzan eta bizitokian dituzten beharrak asetzeko.

5. – Goiko puntuak betetzeko helburu duten jardueretan parte hartu eta erakundeei laguntzea, koordinazio hobea izan dadin (laguntza humanitarioaren kasuan bereziki).

RASD aldarrikatu zeneko 32. urteurrena dela eta sahararrak eta euren legezko ordezkari den Fronte Polisarioa zoriondu nahi ditugu, eta gure solidaritatea agertu nahi diegu. Dagoeneko 32 urtez iraun duen tragedia ahalik eta lasterren konpondu dadin opa diegu, izan ere, tragedia horrek sufrimendu handia ekarri baitie milaka pertsona errugaberi.

Gainera, Erakunde Aitorpen hau Espainiako Erregeari, Kongresuko eta Senatuko Presidenteei, Espainiako Gobernuko Presidenteari, Autonomia Erkidegoetako eta Probintzia Diputazioetako Presidenteei, FEMPeko Presidenteari, Nazio Batuetako Idazkari Nagusiari eta sahararrek Espainian duten ordezkariari bidaltzea adostu dugu.



EB-Berdeak/Aralar Taldearen bozeramale Leunda jaunak irakurri du mozioa.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Lehendakari andreak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: bat ere ez.

Bozketa

Lehendakari andreak aurkeztutako proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV 2, PSE-EE (PSOE) 3, EB-Berdeak/Aralar 2, EA 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakari andreak.



Segidan, Lehendakari andreak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:

3.Ezker Batua-Aralarrek aurkeztutako mozioa, abortuaren despenalizazioaren alde.

Proposamena

Azken hileotan haurdunaldia borondatez eteten duten klinikek jasandako jazarpenek agerian utzi dute abortugintza inolako segurtasun juridikorik gabe garatzen dela gaur egungo legearen arabera, ez direlako emakumeen eskubide sexualak eta ugalketa-eskubideak bermatzen.

Haurdunaldiko zenbait suposamendu despenalizatzeko 9/1985 Legea indarrean sartu zenetik, argi eta garbi dago legeria horrek mugak eta murriztapenak dituela, arau horren arabera abortua delitua delako oraindik. Hiru suposamenduetan oinarritutako jarduna oztopo medikoz eta judizialez betetako lasterketa da. Gero eta zailagoa da haurdunaldia zentro publikoetan, dohainik eta emakumeentzako berme guztiez etetea.



Euskadin, erregistratutako abortuen %92 ospitale eta klinika pribatuetan egiten dira, eta, zentro horietan, “haurdunaren osasun fisiko edo psikikorako arriskuagatik” eten ohi da haurdunaldia. Zentro publikoetan, ordea, abortuen %96 “umekiak jaiotzean tara larriak eduki ditzakeenean” egiten dira. Era berean, azpimarratu egin behar da emakumeak zentro pribatuetara joaten direla, ospitale publikoetako medikuak “kontzientzia-eragozle” egin direlako. Nafarroan, egoera are larriagoa da, gaur egun ez dagoelako haurdunaldia borondatez eteterik ez osasun publikoan ez osasun pribatuan.

Horrez gain, arazoa larriagotzen duten beste gai batzuk ere hartu behar ditugu kontuan. Oro har, azken 10 urteotan, abortu-tasek gora egin dute adin-talde guztietan, gehikuntza hori 30 urtetik beherakoen artean nabariagoa izan den arren. 15 eta 19 urte artean haurdun geratzen diren euskal nerabeen erdiek haurdunaldia borondatez eteteke erabakia hartzen dute. Kopurua %47koa da, eta, urterik urte, etengabe hazten ari da, Estatu Espainolaren gaineratikoan bezala.

Hain zuzen ere, sexu-informaziorik eza eta antisorgailuen informazioan zein finantziazioan dauden gabeziak omen dira gazteen arteko abortuen ehuneko handiaren eragile nagusiak. Talde zaurgarriena da, aurrera egiteko zailtasun gehien dauzkana delako eta familia eratu nahi duen erabakitzeke gaitasunik ez duelako.

Abortatu zuten nerabeen %79,1 ez ziren inolako osasun zentro edo zerbitzura joan, antisorgailuen kontrolari edo erabilerari buruzko informazio eske. Horrez gain, neska haurdunentzat ez da batere erraza koitoaren osteko antisorgailua lortzea. Euskadin, gaur egun, oraindik oso zaila da Osasun Publikoak finantzatzen ez duen pilula hori lortzea.

Horren guztiaren jakitun, behean sinatzen duten udal-taldeek honako konpromiso hauek hartzen dituzte:

- 1.- Emakumeek euren amatasunari buruz erabakitzeke daukaten eskubidea defendatzea eta sustatzea, lege, gizarte eta osasun arloko berma guztiak emanda.*
- 2.- Zigor Kodean behar besteko erreformak egiteke eskabidea sustatzea, bideratzea eta erakunde eskudunei bidaltzea, abortua despenalizatzeke eta sistema publikoan zein dohainik Epekako Legean arautzeke.*
- 3.- Eskolako curriculumean, hezkuntza afektibo eta sexualarekin zerikusia daukaten edukiak agertzea eta antisorgailuei, sexu-jarduneko prebentzioari eta pertsonen nortasun zein aniztasun sexualari buruzko informazioa eskaintzea.*
- 4.- Osasun-sare publikoan, antisorgailuen informazio, finantziazio eta lorpenerako sistema hobetzea.*
- 5.- Osasun-arloko profesionalen kontzientzia-eragozpena arautzea.*

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Lehendakari andreak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Galparsoro andrea

Bigarren orriko bigarren paragrafoko azken zatia ezabatu dela zehaztu du. “Euskadin, gaur egun, oraindik oso zaila da Osasun Publikoak finantzatzen ez duen pilula hori lortzea”.

Ezabapena eginda, mozioa irakurri da, gisa honetara erredaktatuta gelditu delarik:

Proposamena

Azken hileotan haurdunaldia borondatez eteten duten klinikek jasandako jazarpenek agerian utzi dute abortugintza inolako segurtasun juridikorik gabe garatzen dela gaur egungo legearen arabera, ez direlako emakumeen eskubide sexualak eta ugalketa-eskubideak bermatzen.

Haurdunaldiko zenbait suposamendu despenalizatzeko 9/1985 Legea indarrean sartu zenetik, argi eta garbi dago legeria horrek mugak eta murriztapenak dituela, arau horren arabera abortua delitua delako oraindik. Hiru suposamenduetan oinarritutako jarduna oztopo medikoz eta judizialez betetako lasterketa da. Gero eta zailagoa da haurdunaldia zentro publikoetan, dohainik eta emakumeentzako berme guztiez etetea.

Euskadin, erregistratutako abortuen %92 ospitale eta klinika pribatuetan egiten dira, eta, zentro horietan, “haurdunaren osasun fisiko edo psikikorako arriskuagatik” eten ohi da haurdunaldia. Zentro publikoetan, ordea, abortuen %96 “umekiak jaiotzean tara larriak eduki ditzakeenean” egiten dira. Era berean, azpimarratu egin behar da emakumeak zentro pribatuetara joaten direla, ospitale publikoetako medikuak “kontzientzia-eragozle” egin direlako. Nafarroan, egoera are larriagoa da, gaur egun ez dagoelako haurdunaldia borondatez eteterik ez osasun publikoan ez osasun pribatuan.

Horrez gain, arazoa larriagotzen duten beste gai batzuk ere hartu behar ditugu kontuan. Oro har, azken 10 urteotan, abortu-tasek gora egin dute adin-talde guztietan, gehikuntza hori 30 urtetik beherakoan artean nabariagoa izan den arren. 15 eta 19 urte artean haurdun geratzen diren euskal nerabeen erdiek haurdunaldia borondatez eteteko erabakia hartzen dute. Kopurua %47koa da, eta, urterik urte, etengabe hazten ari da, Estatu Espainolaren gaineratikoa bezala.

Hain zuzen ere, sexu-informaziorik eza eta antisorgailuen informazioan zein finantziazioan dauden gabeziak omen dira gazteen arteko abortuen ehuneko handiaren eragile nagusiak. Talde zaurigarriena da, aurrera egiteko zailtasun gehien dauzkana delako eta familia eratu nahi duen erabakitzeko gaitasunik ez duelako.



Abortatu zuten nerabeen %79,1 ez ziren inolako osasun zentro edo zerbitzura joan, antisorgailuen kontrolari edo erabilerari buruzko informazio eske. Horrez gain, neska haurdunentzat ez da batere erraza koitoaren osteko antisorgailua lortzea. Horren guztiaren jakitun, behean sinatzen duten udal-taldeek honako konpromiso hauek hartzen dituzte:

- 1.- Emakumeek euren amatasunari buruz erabakitzeko daukaten eskubidea defendatzea eta sustatzea, lege, gizarte eta osasun arloko berma guztiak emanda.
- 2.- Zigor Kodean behar besteko erreformak egiteko eskabidea sustatzea, bideratzea eta erakunde eskudunei bidaltzea, abortua despenalizatzeko eta sistema publikoan zein dohainik Epekako Legean arautzeko.
- 3.- Eskolako curriculumean, hezkuntza afektibo eta sexualarekin zerikusia daukaten edukiak agertzea eta antisorgailuei, sexu-jarduneko prebentzioari eta pertsonen nortasun zein aniztasun sexualari buruzko informazioa eskaintzea.
- 4.- Osasun-sare publikoan, antisorgailuen informazio, finantziario eta lorpenerako sistema hobetzea.
- 5.- Osasun-arloko profesionalen kontzientzia-eragozpena arautzea.

Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Lehendakari andreak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 7 (PSE-EE (PSOE) 3, EA 2, EB-Berdeak/Aralar 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 2 EAJ-PNV

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakari andreak.



Jarraian, Lehendakari andreak gai-zerrendako 4. puntuaren berri eman du:

4.Ezker Batua-Aralarrek aurkeztutako mozioa, Homofobiaren, Lesfobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguneko Adierazpen Instituzionala babesteko.

Proposamena

1990eko maiatzaren 17an, Osasunaren Mundu Erakundeko (OMEko) Batzar Nagusiak homosexualitatea kendu zuen buru-eritasunen zerrendatik. Horren helburua zen, ia mende oso baten ostean, homofobia medikoarekin eta lesbianen, gayen eta bisexualen diskriminazio sistematikoarekin amaitzea.

Hala ere, nazioartean asko dago egiteko gutxiengo sexualen alde. Gutxienez munduko 9 herrialdetan, homosexualei, bisexualeri eta transexualei heriotza-zigorra ezartzen zaie. Eta herrialde erdietan baino gehiagotan, LGTB komunitatearen aurkako diskriminazioak nazioarteko hitzarmen guztiak hausten ditu, eta giza eskubideak sistematikoki urratzen, oinarritzko eskubideak barne.

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioak eta Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak beren adierazpen politiko, sozial eta kulturaletan homofobia eta transfobia gaitzets ditzaten izendatu da Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna. OMEren erabakiak egun historikoa ezarri du, eta era berean, gayen, bisexualen eta transexualen duintasunaren aldeko borrokan sinbolo garrantzitsua da. Horregatik, maiatzaren 17a proposatzen dugu homofobiaren eta transfobiaren aurkako nazioarteko eguna ospatzeko.

Gure helburua da NBEk maiatzaren 17a Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Egun izendatzea, eta horretarako, hainbat estatu kidek bidali beharko dute eskaera hau aipatu erakundera.

Orain arte, gutxiengo sexuak ekainaren 28an aldarrikatu izan dute berdintasun osoz izateko, maitatzeko eta errespetatuak izateko eskubidea. Herrialde gutxi batzuetan baino ez da ospatzen egun hori, eta, gainera, nazioarteko erakundeen aitortzen ez du izan.

Beraz, bi ekimenak simetrikoak eta osagarriak dira.

Gizarte-taldeen ekimen hau defendatzen dute, eta 40 herrialde baino gehiago daude ados ekimenarekin. Gainera, nazioarteko erakundeen laguntza du, hala nola ILGArena. Horrekin guztiarekin, honako hau lortu nahi da:

- Homofobia eta transfobia eta horiek dakartzaten ondorio kaltegarriak nazioartean (NBE) aitortzea.*
- Nazioarteko babes, gobernuek, batik bat EBkoek, gutxiengo sexualen diskriminazioaren aurkako eguna ospatzeari uko egin ez diezaioten.*
- Jolas-jarduerarik edo eztabaidarik gabeko eguna izatea, aniztasunaren aldeko mezu kritikoagoa eta hezigarriagoa helarazteko.*



EB-Aralar Udal Taldeak honako erakunde-adierazpena aurkeztu du:

1.- Ordiziako Udalak, Oinarrizko Eskubideei buruzko Gutunaren oinarrizko printzipioen alde, hala nola ez-diskriminazioaren alde, onartzen du maiatzaren 17a Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Egun izendatzea, genero-nortasuna eta orientazio sexuala gorabehera, hiritar guztien eskubideak sustatzeko eta berdintzeko egun sinboliko gisa.

2008ko maiatzaren 17an 18 urte egingo dira Osasunaren Mundu Erakundeko Batzar Nagusiak homosexualitatea buru-eritasunen zerrendatik kendu zuela; hori dela eta, Ordiziako Udalak elkartasuna adierazi nahi die mundu osoan orientazio sexualagatik edo genero-nortasunagatik diskriminazio larriak jasaten dituzten milioika pertsoneri, eta hiritar guztiei eta bereziki beste erakunde publikoei deitzen die homofobiaren eta transfobiaren aurka borrokatu daitezen.

2.- Ordiziako Udalak, aipatu konpromisoak oinarri, Estatu Espainoleko Gobernuari eskatzen dio Nazio Batuen Erakundearen eska dezan maiatzaren 17a Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Egun izendatzeko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Lehendakari andreak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Dubreuil jna.

Argitu duenez, gaztelarazko mozioan, adierazpenaren lehenengo puntuan, oker bat dago, ez baita Donostiako Udala, Ordiziakoa baizik.

Zuzendu egin da okerra.

Zuzenketa eginda, Leunda jaunak mozioa irakurri du.

Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Lehendakari andreak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 9 (PNV 2, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2, EB/Berdeak/Aralar 2).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakari andreak.



Segidan, Lehendakari andreak gai-zerrendako hurrengo puntuaren berri eman du:

5.Ezker Abertzaleak aurkeztutako mozioa, Palestinako herriari elkartasuna adierazteko.

Proposamena

PALESTINAREN ALDE

2008an 60 urte betetzen dira Israelgo estatua ilegalki eta gerraren ondorioz sortu zela. Aurten palestinarrek duela 60 urte lehenengo “Nakba” edo katastrofe handia pairatu zutela gogoratuko dute. Orduz geroztik, Israelen gerra-estrategiak bere horretan jarraitu du eta Palestinarrek bizirauten dihardute egunez egun.

2005eko ekainean Marda (Palestina) eta Arbizu (Euskal Herria) herriek senidetze agiri batez haien arteko erlazioari heldu zioten. Agiri horretan elkarrekiko elkartasunean konprometitu ziren. Orain, elkartasun hau Euskal Herri guzira zabaldu nahian, eta Israelgo estatu sionista okupatzaileak lurralde palestinarrean harresia eraikitzen jarraitzen duela ikusirik, honako mozio hau aurkezten dugu:

2004ko uztailaren 9an, Nazioarteko Justizia Auzitegiak, NBEko Batzar Orokorraren eskariz, Kontsulta-irritzi bat eman zuen, palestinar lurralde okupatuan eraikitako Harresiaren ondorio juridikoei buruz. Irizpen horrek Harresia legez kanpoko delat ezartzen du.

Hau gutxi balitz, Euskal Herritik Palestinara joandako brigadisten zuzeneko informazioek egiaztatzen dute Harresia eraikitzeak etxeen suntsiketa dakarrela, soroen suntsipena, eta ureztatze sareena ere, akuiferoen isolamendua eta palestinar biztanleen ezintasuna haien lan-, aisialdi-, eskola-, ospitale- eta formakuntza-eremuetara iristeko... Honek dakarren kalte ekonomikoarekin, eta baita palestinar askoren hilketarekin ere, askotan.

Harresia 2002an hasi ziren eraikitzen, eta gaur egun lehenbiziko faseko 650 km-ak osatu dira, eta bigarren fasearekin hasi dira. Entitate sionistaren Gobernuak “segurtasuna” eta “terrorismoaren kontrako borroka” hartzen ditu aitzakiazat Harresia eraikitzeko. Horretarako, Israelek 1967. urtera arte okupaturiko lurraldea Zisjordania eta Gazatik banandu nahi dute. Hala ere, Harresia sigi-saga barneratzen da Zisjordanian. Horrela, ahalik eta kolonia gehien anexionatzen saiatzen dira, palestinar lurralde eta akuiferoen gaineko kontrol izugarria erdiesten, eta palestinar biztanleen arteko banaketa gauzatzen, palestinar gizartearen existentzia bera ere bideraezina eginez. Harresia eraikitzeko aurreikusiak dauden 3 faseak amaitzen direnean, palestinarrek beren lurren % 12 galduko dute.



Harresia, inguru batzuetan, 8 metroko altuera duen porlanezko eraikuntza da, zaintza-dorreekin. Beste alde batzuetan ordea, elektrifikaturiko hesi geruza desberdinez osaturik dago, lubakiekin, patruilatzeko bideekin eta zaintza-kamarekin.

Apartheidaren Harresi honen eraikuntza estrategia anker baten alde agerikoena baino ez da. Harresiarekin batera, soilik israeldarrak diren eta judutar erlijioa duten herritarrentzako ezarritako kolonia eskusiboak daude, bide-sareak, putzu eta ur-hodiak eta ureztatze-sailak, sare elektrikoak, eta itxuraz demokratikoa den legeria baina benetan sakonki baztertua dena eta araudi burokratiko erabat baztertua dena judutarra ez den edozeinentzako. Horrek guziak Israelen palestinar herriaren aurka gauzatzen ari den genozidioa eta kanporatzea erakusten du, hori bai, itxura "baketsua eta demokratikoa" duena.

Horrez gain, palestinarren hilketak daude, batzuetan kolono israeldarren eskutik, zigorgabetasun osoz. Beste batzuetan Israelgo armadak eginak, gizadiaren aurkako krimenak direnak, dudarik gabe.

Horregatik guztiagatik, Ordiziako UDALAK honako hau ERABAKI du:

1.- Bere esku dagoen guzia eta bere eskuduntzakoa den edozer eginen duela, entitate sionistako gizarte zibila, gobernu eta armada Palestinako lurralde okupatu osotik erretiratzeko eta palestinar guzien eskubide guziak berma ditzaten behartzeko.

2.- Hau honela ez den bitartean, Israelgo produktuekiko boikot komertzial bat deitu, sostengatu eta eginen du, eta Israelekin negozioak eta inbertsioak egiten dituzten enpresa eta erakunde finantzario guzietan, euskaldunak izan edo ez, hauek eten ditzatela eskatuko du. Era berean, Udalerriaren barrutian, Israelgo edonolako jardura akademiko zein intelektual, kultural nahiz kirol arloko boikota eginen dio, eta egin dakiola aldarrikatuko du.

3.- Aldi berean, Palestinako herriarekiko elkartzasuna adieraziko du; jardura instituzionalak, kulturalak, komertzialak etab. bultzatuz, eta horretarako eskura dituen baliabide guztiak erabiliz.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Lehendakari andreak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Galparsoro anderea

Bozketa puntuz puntu egitea eskatu du.

Ez da onartu.



Bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Lehendakari andreak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 0

Kontrako botoak: 5 (PSE-EE (PSOE) 3,EA 2)

Abstentzioa: 4 (PNV 2,EB/Berdeak/Aralar 2)

Ondorioz, aurkeztutako proposamena ez-onartutzat aitortu du Lehendakari andreak.



Segidan, Lehendakari andreak gai-zerrendako hurrengo puntuaren berri eman du:

6.Ezker Abertzaleak-ek aurkeztutako mozioa, Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurkako 33/01 auzia dela-eta.

Proposamena

EZKER ABERTZALEAK-EK AURKEZTUTAKO MOZIOA, AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUAREN AURKAKO 33/01 AUZIA DELA-ETA.

Dispertsioa salatzea ez da delitua. Preso politikoaren kolektiboaren kontra hamarkadatan ezarri den eta ezartzen den dispertsio eta muturreko neurriek osatzen duten salbuespen egoera da delitua.

Tortura salatzea ez da delitua. Torturatzea eta tortura ahalbidetzen duen tresneria hori guztia da delitua; salbuespeneko tribunalak, inkomunikazio legea eta funtsean torturatzeko eraikia den inpunitate esparrua bera da delitua.

Errepresioa salatzea eta pertsonen eskubideak babestea ez da delitua. Estatuen biolentzia eta eskubide urraketa dira delituak.

Elkartasuna ez da delitua. Presoak eta euskal herrian errepresioa jasaten duten milaka emakume eta gizon babes eta elkartasunik gabe uzteko mugimenduen kontrako kriminalizazio eta erasoak dira delitua.

Preso, iheslari eta beren senitartekoak lagundu eta babestea ez da delitua. Kolektibo hauek hondoratzeko eta zatitzeko helburuarekin burutzen diren jazarpen, eraso eta eskubide urraketa horiek guztiak dira delitua.



Auzipetu dutena eta epaitu nahi dutena Estatuén bióntzia eta errepresioaren salaketa eta euskal preso nahiz errepresaliatu guztiekiko elkartasuna da. Frantziako eta Espainiako estatuak euskal gizartearen eta munduaren aurrean biluzten dituen eta beren izaera ez demokratikoa begi bistako egiten duen testigu nagusia erditik kendu nahi dutelako.

Honenbestez, udal honek ondorengo eskakizun eta konpromisoak zehazten ditu:

1. Elkartasun eta babesa luzatzen diegu amnistiaren aldeko mugimenduko 27 auziperatu eta mugimendu honetako militante guztiei eta bereziki gure herritarra den Ainhoa Irastorzari.
2. Auzi honek dakartzan galera ekonomikoei aurre egiteko diru laguntza emango diegu.
3. Kriminalizatu nahi den amnistiaren aldeko mugimenduak bere lanean jarraitzeko duen zilegitasuna aldarrikatzen dugu Espainiako estatuaren eta sistema judizialaren aurrean eta bere lan sozial eta politikoan jarraitzeko ezartzen ari zaizkien trabak gainditzeko exijentzia luzatzen dugu. Auzi honen amaierarekin batera, debeku eta kriminalizazio ekintzak amaitzea.
4. Eskubide zibil eta politikoen urraketa, tortura eta euskal herritarren kontrako errepresio bidegabearen zerranda amaigabea ahalbidetzen duen auzitegi nazionalaren desagerpena aldarrikatzen dugu.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Maialen Galparsoro andreak mozio alternatiboa edo emendakina irakurri du.

EMENDAKINA

Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren kontrako epaiketa Euskal Herriko gatazka politikoaren ondorioz sortutako urraketa etengabeen adibide bat gehiago da. Egoera horren aurrean, giza-eskubide guztiekiko gure konpromisoa eta aldarria berretsi nahi dugu:

- 1.- Giza eskubide guztiekiko konpromisoa geure egiten dugu, eta euskal herritar guztien talde zein norbanakoen giza eskubide guztiak –zibilak eta politikoak barne– bermatu daitezela eskatzen dugu.
- 2.- Bide politiko hutsen aldeko konpromisoa berretsi nahi dugu. ETAren atentatuak gaitzesten ditugun bezala, tortura, dispersioa edo erabat politizatutako eta neurrigabeko erabaki judizialen kontrako jarrera berresten dugu,
- 3.- Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideen kontrako epaiketa bermerik gabe egiten ari dela salatzen dugu, eta epaiketa hori bertan behera gelditu dadila eskatzen dugu.
- 4.- Entzutegi Nazionala salbuespen entzutegia den neurrian, salbuespen epaitegiak bertan behera utz daitezela aldarrikatzen dugu.

Eztabaida

Lehendakari andreak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: Ez da izan.

Emendakinaren bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Lehendakari andreak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 2 (EB-Berdeak/Aralar)

Kontrako botoak: 5 (PSE-EE (PSOE) 3,EA 2)

Abstentzioa: 2 (EAJ-PNV)

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Alkate andreak.

Mozioren bozketa

Mahaiko eztabaida amaitutzat emanda, eta bertan den publikoari hitz egiteko aukera eman ondoren, Lehendakari andreak proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 0

Kontrako botoak: 9 (PSE-EE (PSOE) 3, EA 2, EB-Berdeak/Aralar 2, EAJ-PNV 2)

Abstentzioa: 0

Ondorioz, aurkeztutako proposamena ez-onartutzat aitortu du Lehendakari andreak.



Segidan, eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du Lehendakariak.

7.Ezker Abertzaleak-ek aurkeztutako mozioa: “Demokrazia Zero”.

Proposamena

EUSKAL HERRIAN DEMOKRAZIA ZERO !!!!!

Herriarena da erabakia, eta herriarena zilegitasuna, guztia eta bakarra. Hori izan behar da demokraziaren oinarria baita edozein erakundeena ere. 2007ko udal hauteskundeak ez ziren baldintza demokratikoetan garatu, ez zen aukera berdintasunik izan. Espainiar Estatuak Alderdi Politikoen legearen bidez aukeratua izan eta aukeratzeko eskubidea urratu zuen Euskal Herrian. Demokraziaren aurkakoa den lege horren gaineratik herritarrak bere borondatea agertu zuten, bere ordezkariak aukeratu zituzten. Batzuk legezko aitortza izan zuten, beste batzuk ukatua. Baina udal ordezkari egiten gaituena ez da legea, herritarren borondatea baizik. Eta hori da errespetatu beharrekoa, herritarren borondatea.

Euskal Herriak bizi duen egoera ez da demokrazia zkoa, ez da bake egoera bat. Euskal Herriak gatazka nozitzen du, azken hilabete hauetan gordindu den gatazka. Euskal Herriari nazio izaera ukatzen zaio, herri bezala dagozkion eskubideak ukatzen zaizkio, herritar bezala dagozkigunak ere. Espainiar eta frantziar estatuek euskal herritarroi beren legediak ezartzen dizkigute, gure borondatearen gaineratik. Ikuspegiak anitzak izan daitezke eta behar dute izan, baina gatazkaren muinean bada ukazina den errealitatea, euskal herritarrok ukatua dugu, egun, gure etorkizuna libreki eta demokratikoki aukera guztien artean erabakitzeko eskubidea. Egoera horren isla zuzena pairatzen dugu udalean, herriaren borondatearen gaineratik ezartzen delako espainiar Alderdi Politikoen legea, hautetsi batzuei izaera bera ukatuz, beste batzuen eguneroko jardura bertan behera edo legez kanpo utzita. Demokrazia faltan du gatazkak sorburua, eta demokratikoa izan beharko da konponbidea.

Bizi dugun egoera gordinaren aurrean, herritarren ordezkari garenok arduraz jokatu behar dugu. Ezin dugu gatazka ukatu, ukatzeak ez duelako gatazka konpontzen, ezin dugu gatazkaren sorburua ukatu, konponbideak gatazkaren muinera joatea eskatzen digulako, eta ezin ditugu gatazkaren ondorioak ukatu, gatazka eta ondorio guztiak gainditzea izan behar dugulako helburu. Arduraz jokatu behar dugu, behingoz eta betirako gatazkari konponbide bat ematea delako, herriaren aurrean, gure ardura nagusia.

Ardura eta zintzotasuna da herriari zor dioguna, ez ditugu arazoaren konponbideari mesede eskasa egiten dizkieten alde bakarreko irakurketak behar. Ez ditugu oportunistotik abiatu eta alderdien interesak ase besterik helburu ez dituzten neurriak behar. Udal jardueran inolako oinarria izan ez eta alderdikieriaz erabiltzen diren Zentsura Mozioak ez ditugu behar, ez dira zilegiak, herritik kanpo erabakiak eta herriaren borondatearen aurka aurkeztuak direlako, alderdi batzuk herritarrek eman ez dieten boterea eskuratzeko erabili nahi dituztelako. Urteetan ezarri eta porrota eta sufrimendua besterik ekarri ez dituzten neurri errepresiboak alboratu behar dira, gatazkaren muinetara jo eta ariketa demokratiko bat egin behar dugu, herritarren esku utzi etorkizuna, aukera guztien artean erabakitzeko eskubidea.



Herri honek ezin du permititu orain 30 urte gertatutakoa errepikatzea, eta gu, nahi duten guztiekin batera, benetako aldaketa politikoa eman dadin baldintzak sortzeko lan egingo dugu.

Arduraz, zintzotasunez, herriari arazoak konpontzeko alternatibak eskaintzea baldin bada gure udal jardueraren oinarria azaldu dezagun bada herri honek bizi duen arazorik larrienari konponbidea emateko konpromisoa eta ausardia.

Hau guztia kontutan hartuta, honako mozioa aurkezten dugu udal osoko bilkurak eztabaida eta onar dezan:

1.Udal honek, herritar oro eskubide zibil eta politiko guztien subjektu dela aldarrikatzen du. Era berean, Euskal Herritar orori dagokigu gure herriaren etorkizuna erabakitzea.

2.Udal hau ez dago herriak aukeraturiko ordezkariak legez kanporatuak izatea onartzeko prest. Hala udal hauteskundeetan jazarpena jasan zuten zerrendetako kide, nola suspentsioaren ondorioz eragina jasan dutenak. Hortaz, herritarrek aukeraturiko EAE-ANVko zinegotziak, eragile eta mintzakide politiko gisa onartzen ditu.

3.Udal honek, alkate eta zinegotzien aurkako jazarpen judiziala – zitazioak, Ino Galparsoro Arrasateko alkatesaren espetxeratzea,...- salatzen du.

4.Udal honek herriari aitortzen dio zilegitasun guztia eta bakarra. Hortaz, udal honek, 2007ko maiatzaren 27an, lege arrotz eta neurri errepresiboen gaineratik, herriak aukeraturiko ordezkari guztien aitortza exijitzen du, udalerrri guztietan herritarren borondatea errespetatua izan dadin ordezkariak dugun udaletan.

5.Hori horrela izan dadin, alderdi politikoei LOREG delako 182.2 artikulua aplikatzeko urrats guztiak eman dezatela eskatzen diegu, herriak aukeratu ordezkariak aitortza eta eskubide guztiak bereganatu ditzaten.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Lehendakari andreak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Galparsoro andrea

Bozketa puntuz puntu egitea eskatu du, baina eskaera ezetsi egin da.

Bozketa

Lehendakari andreak aurkeztutako proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botuak: 0

Kontrako botoak: 9 (EAJ-PNV 2, PSE-EE (PSOE) 3, EB-Berdeak/Aralar 2, EA 2)

Abstentzia: 0

Ondorioz, aurkeztutako proposamena ez-onartutzat aitortu du Lehendakari andreak.



Segidan, Lehendakari andreak gai-zerrendako hurrengo puntuaren berri eman du:

8.-Ordiziako alde zaharrear trafikoa arautzen duen ordenantzaren aldaketa.

Proposamena

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 25.2b) artikulua arabera, udalerririk eskumena du herriko kaleetan ibilgailu eta pertsonen trafikoa ordenatzeko.

Gainera, martxoaren 2ko 39/1990 Errege Dekretu Legeak, Trafiko, Motordun Ibilgailu eta Bideetako Segurtasunari buruzko Legeko testua onartu zuenak, Udalei ematen die kaleetako zirkulaziorako udal ordenantzak onartzeko eskumena, eta horietan isunen kopuruak finkatzeko, aurrez ezarritako baremoen arabera.

Hori betetzeko, 1999ko uztailaren 15ean izandako Osoko Bilkuran onartu zen Ordiziako Alde Zaharrear Zirkulazioa Arautzeko Ordenantza.

Udalak beharrezko ikusten du aipatu ordenantza aldatzea, bai Alde Zaharrera sartzeko baimenei dagokienean, bai arau-hauste arinei dagozkien zigorrei dagokienean (azken kasu horretan, trafiko, motordun ibilgailu eta hiri-bideetako segurtasunari buruzko udal ordenantzari egokitzeko).

Toki Araubideko gaietan indarrean dauden xedapenen Testu Bateginaren 56. artikulua esaten duenez, Ordenantzak onartzeko bete behar diren xedapen berberak bete behar dira horiek aldatzeko.

Hortaz, honako prozedura jarraitu behar da:

- a) Osoko Bilkurak hasieran onartu.
- b) Jendaurrean jarri eta interesatuei entzun, erreklamazio eta iradokizunetarako 30 eguneko gutxieneko epean.
- c) Epearen barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebatzi eta Osoko Bilkurak behin betirako onartu.

Erreklamazio edo iradokizunik ez balego, ordura arte behin behineko izandako erabakia behin betiko onartutzat joko da.

2008ko ekainaren 11ko Zerbitzu Delegazioaren eta 2008ko ekainaren 18ko Plenorako Gaien Batzordearen aldeko irizpenekin, honako honen proposamena egiten da.

AKORDIO PROIEKTUA.

1.- Behin behinean onartzea Ordiziako Hiri Zaharrear Trafikoa Arautzen Duen Ordenantzari honako aldaketak egitea.

4. artikulua. Ibilgailuen trafikoa.

Hirugarren puntua kentzea: "Baimendutako suposamendu eta tokietan bakarrik gera daitezke ibilgailuak".

5. artikulua.- Baimendutako zirkulazioa.

"Esparruko dendarien titularrarenak direnak" dioen lekuan "zamilanetarako baimendutako ordutegietan" erantsi.

"Esparruko dendari eta biztanleak hornitzera joaten direnenak, baimendutako toki eta orduetan" dioen tokian "dendariak hornitzera joaten direnak baimendutako ordutegietan" jarri.

"Ziklomotoreak zirkulatzea debekatuta dago eremu guztietan, inguru horretan bizi direnenak izan ezik, ibilgailuak gordetzeko bakarrik, bai eta banatzaileek bere lana egiteko izan ezik" dioen tokian, honako hau jarri: "Ziklomotoreak eta motozikletak zirkulatzea debekatuta dago eremu guztietan, inguru horretan bizi direnenak izan ezik, ibilgailuak gordetzeko bakarrik, hala nola, banatzaileek beren lana egiteko izan ezik".

6. artikulua.- Baimendutako geratze eta aparkatzeak

"Ibilgailua gelditzeko baimena izango dute eremu horretako biztanle eta dendariak, bidaiariak igo eta jaisteko edo zamilanetarako, inolako ordu-murrizketarik gabe" dioen tokian, honako hau jarri: "Ibilgailua gelditzeko baimena izango dute eremu horretako biztanleak, bidaiariak igo eta jaisteko edo zamilanetarako, inolako ordu-murrizketarik gabe."

"Zamilanetarako gelditze eta aparkatzeko baimena izango dute dendarien eta biztanleen merkantzia hornitzaileak, baimendutako toki eta orduetan" dioen tokian, honako hau jarri: "Zamilanetarako gelditze eta aparkatzeko baimena izango dute dendariak eta merkatarien merkantzia hornitzaileak, baimendutako toki eta orduetan."

"Gelditze eta aparkatzeko baimena izango dute zerbitzu publikoetako ibilgailuek, inolako mugarik gabe, eta agindutako zerbitzu publikoa egiteko behar adina denboraz" dioen tokian, honako hau jarri: "Gelditze eta



aparkatzeko baimena izango dute zerbitzu publikoetako ibilgailuek agindutako zerbitzu publikoa egiteko.”
Zerbitzuak denbora gehiago iraungo duela aurreikusten denean aurrez jakinarazi beharko zaio Udaltzaingoari, beharrezko jarraibideak eman ditzan bideko oztopoak gutxitzeko.

“Hileta-elizkizun, eztei eta baimendutako gainerako ospakizunak direnean, gelditze eta aparkatzeko baimena izango dute, Udaltzaingoak ekitaldi bakoitzean mugatutako aldean” dioten tokian, honako hau jarri: “Hileta-elizkizun, eztei eta baimendutako gainerako ospakizunak direnean, gelditze eta aparkatzeak aurrez Udaltzaingoari jakinarazi beharko zaizkio, beharrezko jarraibideak eman ditzan bideko oztopoak gutxitzeko.
Aldez aurretiko jakinarazpena, ezarritako protokoloa jarraituz egingo da.

7. Artikulua.- Baimenak:

“Eremu horretan ibiltzeko eskubidea dutela egiaztatzen duen udal baimena eraman beharko da ibilgailuetan. *Baimen horiek pertsonal eta besterenezinak izango dira*” dioten lekuan, honako hau jarri: “zamalanelarako ezarritako orduetan zirkulatu ahal izango duten merkataria eta merkatarien merkantzia hornitzaileak izan ezik”.

Baimen iraunkorrak atalean, “Eremu horretan bizi direnek, dendariak eta maiz-maiz bere lanak egin behar izaten dituzten hornitzaileak eskura dezakete baimen iraunkorra” dioten tokian, honako hau jarri: “bizilagunek eta herri zaharreen diharduten jardueretako titularrek baimen iraunkorra lortu ahal izango dute, azken horiek, beti ere, Udaltzaingoarekin bat egiten ez duten ordutegia badute”.

“Behin-behineko baimenak edo bereziak” atalean:

“a) bertan bizi direnentzat atalean:

** bertan bizi dela, dagokion erroldatzearen ziurtagiri bidez egiaztatuko da.*

Bertan bizi dela Udalak berak frogatuko du biztanleen erroldaren bitartez. Erroldatuta egon arren, helbide horretan bizi ez delako aztarnak aurkitzen badira, Udal honek dagozkion neurriak hartuko ditu.

** baimena eskatzen den ibilgailuaren zirkulazio baimenak, eskatzailearen helbideak eta titulartasunaren datuak bat etorri beharko dute.*

a) merkatarientzat atalean: **“merkataritza-jardueraren justifikazioa eremuan, Udaltzaingoaren zerbitzu-ordutegitik kanpo” dioten lekuan,**

11. artikulua. Arau-haustek tipifikatzea.

2-C) atalean, “Baimendu gabeko tokietan ibilgailuak geratu eta aparkatzea” dioten tokian, honako hau jarri: “ibilgailuak esparru osoan aparkatzea”.

12. Artikulua. Zigorrak:

1 atalean, "arau-hauste arinak 6,00tik 30,00 euro arteko isunak izango dituzte." dioen tokian, honako hau jarri "arau-hauste arinek 6,00tik 40,00 euro arteko isunak izango dituzte".

2. atalean "Arau-hauste larriak 30,01etik 150 euro arteko isunaz, eta/edo udal baimena behin-behinekoa bada, behin-betirako kenduz; udal baimena betirako denean, udal baimena urtebeterako kendu daiteke" dioen tokian, honako hau jarri "Arau-hauste larriak 40,01etik 150 euro arteko isunaz, eta/edo udal baimena behin-behinekoa bada, behin-betirako kenduz; udal baimena betirako denean, udal baimena urtebeterako kendu daiteke."

Xedapen gehigarria.

Ezabatu lehenengo paragrafoa: "Ordenantza honen ezarpena pixkanaka egingo da, eremu guztirako aurreikusitako urbanizazio lanak egiten joaten diren neurrian; betiere, oinezkoek erabiltzeko moduko espazioak sortzen diren neurrian, eta, ondorioz, ibilgailu trafikoa murrizten den neurrian."

2.- Ordenantzaren aldaketak jendaurrera jarri beharko dira 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan, eta interesatuta daudenek aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunei tartea eman, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik. Erreklamaziorik ez balego, Ordenantza behin betiko onartutzat joko litzateke, beste erabakiren beharrik gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Lehendakari andreak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Asenjo jna.

Labur-labur azaldu ditu aldaketak, helburua izanik alde zaharreko oinezkoen segurtasuna eta lasaitasuna.

Bozketa

Lehendakari andreak aurkeztutako proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV 2, PSE-EE (PSOE) 3, EB-Berdeak/Aralar 2, EA 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakari andreak.



Segidan, Lehendakari andreak gai-zerrendako hurrengo puntuaren berri eman du:

9.Gizarte Ongizateko Aholku Batzordearen Araudiaren hasierako onarpena.

Proposamena

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuak arautzen dituen 5/1996 Legeak, administrazio-jardunbidearen printzipio zuzentzaile gisa, bideak ezartzen ditu hiritarrek gizarte-zerbitzuetan parte har dezaten, eta xedatzen du botere publikoek sustatuko dutela legeak berak ezarritako bideen bitartez.

Gizarte Zerbitzuen planifikazioan eta ebaluzioan hiritarren parte hartzea eman dadin, aipatu Legearen 19. artikulua aukera ematen die Udalei Gizarte Ongizateko Aholku Batzordeak sortzeko. Aipatutako Kontseiluen izaera aholku-emailea izango da, gizarte zerbitzuen egitura, antolaketa eta funtzionamenduari lotutako gaietan.

Era berean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70. artikulua, udalak behartzen ditu prozedura eta organo egokiak ezartzera eta arautzera, bizilagunek udalerriko gaietan benetan parte har dezaten. 69. artikulua araberan, aipatu prozedura eta organoek ezingo dituzte inolaz ere gutxitu Legeak araututako ordezkari-organoei dagozkien erabaki-ahalmenak.

Azkenik, Ordiziako Udaleko Arautegi Organikoak honakoa dio 27. artikuluan: zinegotzien gehiengoak horrela erabakitzen dutenean, Udalak herritarrei eta herri-erakundeei kontsultatuko diela, horretarako batzarrak deituta edo beste edozein bide erabilita.

Aipatu Legearen 22. 2 d) artikulua araberan, Udaleko Osoko Bilkurari dagokio ordenantzak onartzea.

49. artikulua esaten duena aintzat hartuta, honako prozedura jarraituta onartuko dira Ordenantzak:

- a) Osoko Bilkurak hasieran onartu.
- b) Jendaurrean jarri eta interesatuei entzun, erreklamazio eta iradokizunetarako 30 eguneko gutxieneko epean.
- c) Epearen barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebatzi eta Osoko Bilkurak behin betirako onartu.

Erreklamazio edo iradokizunik ez balego, ordura arte behin behineko izandako erabakia behin betiko

onartutzat joko da.

2008ko ekainaren 11ko Gizarte Ongizateko Delegazioaren eta 2008ko ekainaren 18ko Plenorako Gaien Batzordearen aldeko irizpenekin, honako honen proposamena egiten da.

AKORDIO PROIEKTUA:

1.- Gizarte Ongizateko Aholku Batzordearen Araudiaren hasierako onespena.

2.- Araudiaren aldaketak jendurrean jarri beharko dira 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan, eta interesatuta daudenek aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunei tartea eman, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik. Erreklamaziorik ez balego, Arautegia behin betiko onartutzat joko litzateke, beste erabakiren beharrik gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Lehendakari andreak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Dubreuil jna.

Azaldu duenez, gizarte zerbitzuen arloan herritarren parte-hartze prozesuaren lehenengo aldiaren amaierako puntuan gaude.

Arautegi honekin, aipatu partaidetzari bide eman nahi zaio.

Erakunde ezberdinen laguntzarekin eta parte-hartzearekin egin da arautegia; besteak beste, Kimetz, Nagusilan, Caritas eta abarrekin.

Gorpuztu egin behar da orain, parte-hartze horrekin udaleko politika sozialaren plangintza egiteko.

Eskertu egin ditu aipatutako erakundeen parte-hartzea eta ardura, bai eta EB/Berdeak-Aralar taldearena eta alkate jaunarena ere, lanean jarrai dezaten animatuz.

Leunda jna.

Dubreuil jaunak esan bezala, aipatu arautegiak parte-hartzearen oinarriak jartzen dituela uste du, baina zalantzan dago talde politikoek kontseiluan duten parte-hartzeaz. Bere esanetan, talde politikoek aipatu eztabaida-lekuetan parte-hartzeak, udal organo paraleloak sortzea ekar dezake.



Dubreuil jna.

Erantzun dionez, bera ere zalantzan dago, baina zalantzak denborak argituko dituela uste du. Hika-mika politikoak eztabaida-lekura eramateak kezkatzen du. Alderdiek politika orokorrarekiko ikuspuntu jakina dute eta horrek mugatu egin ditzake erakundeak, baina, aldi berean, garrantzitsua da zuzeneko informazioa ematea.

Zalantzak baditu, baina uste du alderdi politikoek parte-hartu egin behar dutela plangintzan, gobernuan izan edo oposizioan izan.

Bozketa

Lehendakari andreak aurkeztutako proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botuak: 9 (EAJ-PNV 2, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, EB-Berdeak/Aralar 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakari andreak.



Segidan, Lehendakari andreak gai-zerrendako hurrengo puntuaren berri eman du:

10.- 2007ko kontu orokorra onartzea.

Proposamena

Kontuen Batzorde Bereziak, 2008eko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, aldeko irizpena eman zion 2007ko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari.

Aldeko txostena jendaurrean egon da ikusgai, 2008ko maiatzaren 30eko GAOko 103. alean, eta ez da inolako erreklamaziorik edo iradokizunik jaso; beraz, aipatu iragarkian esaten den bezala, hasierako txosten hori behin betiko bihurtuko da.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4. artikuluan dagoena aplikatuta, honako hau onartzeko proposamena egin zaio Udaltzari.



AKORDIO PROIEKTUA.

Onartu 2007ko Aurrekontuaren Kontu Orokorra.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Lehendakari andreak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Kontu-hartzailea

Adierazi duenez, Kontuen Batzorde Bereziak Kontu Orokorraren aldeko irizpenaren ondoren, jendaurrean izan da eta denbora horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

2007ko Kontu Orokorraren onarpena, beraz, bidezkoa da.

Bozketa

Lehendakari andreak aurkeztutako proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV 2, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, EB-Berdeak/Aralar 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakari andreak.



Segidan, Lehendakari andreak gai-zerrendako hurrengo puntuaren berri eman du:

11.Udalaren eta CAF enpresaren artean sinatuko den hitzarmenaren behin betiko onespena.

Proposamena



2008ko apirilaren 23an onartu zuen hasierako izaeraz Osoko Bilkurak Udalaren eta CAF enpresaren artean izenpetu beharreko hitzarmena, A.I.U. "12-UPABI" interbentzio eremuan indarrean dagoen plangintza aldatu eta etorkizunean garatzeko.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriaren arabera, aipatutako hitzarmena jendaurrean jarrita egon da ezarritako legezko apean, 2008ko maiatzaren 13ko GAOko 90.alean, eta epe horretan Edurne Huesa Otegik aurkeztutako alegazio bakarra aurkeztu da.

Aurkeztutako alegazioari lotuta, txostena egin dute zerbitzu teknikoek, 2008ko ekainaren 12an.

2008ko ekainaren 18ko Plenorako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako proposamena egiten da:

AKORDIO PROIEKTUA.

a) Edurne Huesak egindako alegazioak ukatu, honako arrazoiengatik:

1.- Hirigintza antolamendu eta plangintzako ahalmenak betez, Udalak erabaki du A.I.U. "12-UPABI" interbentzio eremurako Arau Subsidiarioek ezarritako irizpide eta helburuen aldaketa puntualari ekitea.

Hitzarmen honen helburua horixe da, hain zuzen; eremuaren antolaketarako irizpide berriak definitu eta zehaztea, eta aldi berean, aldaketa hori burutzeko bi aldeek hitzartutako konpromisoak definitzea.

Plangintzako aldaketa puntual hori tramitatzerakoan hainbat administrazio eta sektoreetako organoen kontrolpean egongo da hasiera batean.

2.- Ez da hitzarmenaren helburua eremuaren ordenazio xehakaturia ezartzea.

Alegazioan azaldutako irizpideak egoki diren ala ez baloratzeko, ordenazio xehakaturia definitzerakoan egingo da.

3.- Ez da Hitzarmenaren edukiarekiko alegazioa, legea betetzeko eskakizuna baizik. Indarrean dagoen legedia erabiltzen da Hitzarmenarekiko, nahiz eta bertan ez den espresuki jasotzen.

b) Hitzarmena euskaratzeko eskaera onartu.

c) Udalaren eta CAF enpresaren artean izenpetu beharreko hitzarmena hasiera batean onartzeko erabakia behin betikoa bihurtzea.

d) Alkate ahaldundu behar diren agiri guztiak sinatzeko.

e) Hitzarmenaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera bidali argitaratzeko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Lehendakari andreak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Idazkari andrea

Adierazi duenez, Hitzarmenaren hasierako onespeneren ondoren, eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearekin bat etorrira, aipatu Hitzarmena jendaurrean izan da 20 egunez. Hitzarmena jendaurrean izan den garaian, Edurne Huesa Otegik aurkeztutako alegazio bakarra izan da, eta ukatu egin da, Hitzarmenaren testua euskaratzeko eskaera salbu. Testua euskaratuta dago jada.

Leunda jna.

Adierazi du bere taldea abstenitu egingo dela, hitzarmenak Udalari eta Ordiziako herriari inongo onurarik ez dakarkiolako; guztiz kontrakoa, baizik.

Ez daude CAFen garapeneren kontra. Eskualdeko jende askok egiten du lan bertan.

Ezinbestekoa da, bere iritziz, Malkaskoko zubitik datorren erreka bazterreko bideari edo pasabideari uko egitea, arau subsidiarioetan proposatu bezala.

Bere ustez, CAFek badu gaitasun ekonomiko nahikorik irtenbidea jartzeko, neurri zorrotzik hartu gabe, ekonomato zaharra bota gabe.

Ez daude ados hitzarmena saldu zaien erarekin.

Dubreuil jna.

CAFek eskualdeari jaten ematen diola uste du, eta horregatik baloratu ditu hitzarmeneko alde hautemangarriak (lur sailak ematea) eta hauteman ezin direnak (lanpostuak sortzea).

Asenjo jna.

Dubreuil eta Leunda jaunek adierazitakoarekin bat dator, baina ez dago ados EB-Aralarren abstentzioarekin. Hitzarmena sinatzeak ez dakar eztabaida amaitzea.

Publikoa



Hitza hartu du eremuko jabeak batek. Horren esanetan, CAFi ez zaio eskatu indarrean dagoen legedia betetzea eta, aldiz, berari ez zaio ezertarako baimenik eman.

Idatziko den PERlari (barne-erreformako plan berezia) buruzko galdera izan da. Idazkari andreak argitu duenez, aipatu PERla ez da beharrezkoa izango baldin eta arau subsidiarioen aldaketa puntuala behar bezain zehatz idazten bada, zuzenean exekututzea ekarriko bailuke.

Bozketa

Lehendakari andreak aurkeztutako proposamenaren bozketari ekin dio.

Bozketak, honako emaitzak izan ditu:

Aldeko botoak: 7 (PNV-EAJ 2, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 2 (EB-Berdeak/Aralar)

Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat aitortu du Lehendakari andreak.



Segidan, Lehendakari andreak gai-zerrendako hurrengo puntuaren berri eman du:

12.- Filipineta kaleko 1.ean egingo den eraikineko garajeetara sartzeko arrapalarako Emakida Administratiboa.

Lehendakari and.

Esan duenez, Plenorako Gaien Batzordearen aldeko irizpena duen arren, gaia sakonago aztertuko da.

Idazkari andrea

Arrazoiak azaldu ditu. Bi puntu eztabaidatsu daude kontzesio kontratuaren proposamenean:

- 1.- Kanonaren prezioa.
- 2.- Garajeetara sartzeko arrapalaren eraikuntza-lanen kostua.

Gaia mahai gainean geratu da.



Segidan, Lehendakari andreak gai-zerrendako hurrengo puntuaren berri eman du:

13.Publizitateko Ordenantzaren behin betiko onespena.

Lehendakari and.

Adierazi duenez, Gobernu Taldeko kideek aztertu gabe utzi dute gaia, antza denez Alkateak (uneotan kanpoan dago) konpromisoa hartu zuelako gizarte-talde eta gizarte-agenteekin berriro biltzeko, aurreko bilera batean aurkeztutako alegazioei erantzuteko.

Hargatik, hurrengo plenora eramango da gaia.



Segidan, Lehendakari andreak gai-zerrendako hurrengo puntuaren berri eman du:

14.-Galde-eskeak.

Asenjo jaunak, EAren izenean, babes eta elkartasun osoa adierazi die EAJ-PNVko kideei, mehatxuzko pintadak azaldu direlako. Alderdi politikoei kritikak egitea legitimoa dela uste du, baina mehatxuak beste zerbait direla. Gertakariak publikoki salatu ditu.

Publizitate Ordenantza behin betiko onetsi gabe uzteko erabakiaren gainean zera adierazi du: irekiko den bideak emaitzak izango dituela. Azken bileraren ostean ikusi du gizarte-agente guztiak, ANV eta AHT barne, bat datozela herria garbi eta txukun eduki behar dela, eta hori onuragarria iruditzen zaio. Baina, bere ustez, AHTk zerbait esan beharko luke abiadura handiko trenaren aurka azkenaldian herrian egin diren pintadak direla-eta. Herria pintadaz josita dago. Kritika adierazteko beste modurik badela uste du.

Dubreuil jaunak ere elkartasuna adierazi dio EAJ-PNV alderdiari, bai eta mehatxuak jasaten dituen beste edozein talde politiko, erakunde edota pertsonari ere.

Bere ustez, Publizitate Ordenantzari buruzko bileretan parte-hartzen duten hainbat taldek eta pertsonak ez dute eredurik onena ematen han lantzen denaren gainean.

Esan duenez, Gobernu Taldea prest dago Ordenantzaren lanketan parte hartu duten taldeen hitza entzuten jarraitzeko. Estali behar den lege-hutsunea badela uste du.

Jasotako elkartasunaren aurrean, eskerrak eman ditu Txurruka jaunak. Era berean, ez ditu ulertzen Ezker Abertzaleak plenoan eztabaidatzeko aurkeztutako “Demokrazioa zero” eta gisa bereko mozioak. Udalak Publizitatearen Ordenantza onartu egin behar duela uste du. Udalaren kompetentzia eta eginbeharra da gaia arautzea, gizartearen parte-hartzea kontuan izanda ere.

Herriak azkenaldian ageri duen paisaia triste xamarra iruditzen zaio. Erabat pintatuta eta kartelez josita dago.

Maialen Galparsoro andreak, ordezkatzen duen taldearen izenean, elkartasuna adierazi dio EAJ-PNVri, mehatxuen aurrean.

Publikotik, pertsona batek hainbat galdera egin ditu Abiadura Handiko Treneko obren gainean.

Dubreuil jaunak azpimarratu du gaur, ekainaren 26a, Torturaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela.

Torturaren aurkako salaketa publikoa egiteko komunikatua adostea eskatu die alderdi politiko guztiei. Aipatu adierazpenaren proposamena eman dio talde bakoitzari, eta hori eztabaidatzekotan gelditu dira.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakari andreak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, behin behineko Idazkariak egiaztatzen dut.